



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko azaroaren 22a

40. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarri bat ematen duena Unión de Agricultores y Ganaderos de Navarra (UAGN) eta Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna (EHNE) erakundeei diruz laguntzeko, nekazarien eta abeltzainen interesak babesteagatik (3. or.).
- Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarri bat ematen duena Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (9. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, 103/2017 Foru Dekretuaren aurka jarritako errekurtsioak direla-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaien ondoren Nafarroako Gobernuak baliatuko duen hizkuntz politikari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Arkeologiako plan zuzendaria taxutu dezan. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da AP-68 autobidearen ibilbide osoa bidesaririk gabekoa utz dezan. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, premiatzen da gure erkidegoan sexu-askatasunaren eta -intimitatearen aurkako delituak borrokatzera. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (13. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-partida bat sar dezan 2020ko aurrekontuetan, Nafarroan atletismoa egiteko instalazio homologatu bat eraiki edo egokitzeko, bai eta kirola urte osoan zehar egitea ahalbidetuko duen pista estali bat ere. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2020an obrak lizita eta has ditzan Tuterako La Atalaya zentroan gutxienez ere bizikidetasun-unitate berri bat eraikitzeko. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Suizidioaren Prebentziorako Estrategia Nazional bat taxutu dezan, eta Nafarroako Gobernua, Suizidioaren Prebentziorako Nafar Estrategia integral bat presta dezan. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultzada eman diezaion Soria-Tutera A-15 autobioaren eraikitzeari. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalik eta lasterren har ditzan beharrezko neurriak, Arraitz-Orkin zeharbidean ibilgailu astunen iragatea murrizte aldera. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (19. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere solidaritate eta sostengua adierazten baitizkio Boliviako Estatu plurinazionalako presidente Evo Moralesi. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).
- Adierazpen instituzionala, Nafarroako Parlamentuaren eta tokiko korporazio demokratikoen 40. urteurrenaren kariatara egina. Eledunen Batzarrak onetsia (21. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortu egiten baitu genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituneko neurriak abiarazi zirenez geroztik Espainiako Gobernuak, Foru Gobernuak eta toki entitateek eginiko esfortzu eskerga. Eledunen Batzarrak onetsia (22. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adierazten baitu emakumeek pairatzen dituzten hainbat diskriminazioren ondoriozko edonolako indarkeria sexistaren aurrean. Eledunen Batzarrak onetsia (22. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu heldu den azaroaren 19an eginen den Haurren Sexu-abusuaren Prebentziorako Nazioarteko Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (23. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen baitu Mikel Arregi zenaren oroitzapena eta memoria bizirik mantentzea, era errefusatu egiten baititu haren oroitzapenezko monolitoaren aurka behin eta berriro eginiko erasoak. Eledunen Batzarrak onetsia (23. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu 'Biosciencie' aldizkarian klima-aldaketa dela-eta argitaratu diren aldarrikapenekin, 153 herrialdetako 11.258 ikertzaile zientifiko baino gehiagok sinatutakoekin. Eledunen Batzarrak onetsia (24. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla aldatzea (25. or.).
- Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordeak Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan dituen kideak izendatzea (26. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarri bat ematen duena Unión de Agricultores y Ganaderos de Navarra (UAGN) eta Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna (EHNE) erakundeei diruz laguntzeko, nekazarien eta abeltzainen interesak babesteagatik.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2019ko azaroaren 13an hartutako Erabakiaren bidez, foru lege proiektu bat igorri dio Nafarroako Parlamentuari, kreditu-gehigarri bat ematen duena Unión de Agricultores y Ganaderos de Navarra (UAGN) eta Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna (EHNE) erakundeei diruz laguntzeko, nekazarien eta abeltzainen interesak babesteagatik.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea honako foru lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia: “Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarri bat ematen duena Unión de Agricultores y Ganaderos de Navarra (UAGN) eta Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna (EHNE) erakundeei diruz laguntzeko, nekazarien eta abeltzainen interesak babesteagatik” (10-19/LEY-00012).

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarri bat ematen duena Unión de Agricultores y Ganaderos de Navarra (UAGN) eta Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna (EHNE) erakundeei diruz laguntzeko, nekazarien eta abeltzainen interesak babesteagatik

ATARIKOA

Nekazaritza Zerbitzuaren 2019ko gastuen aurrekontuan honako partida hauek daude: 710002 71220 4819 412100 partida, “UAGNrentzako dirulaguntza, nekazarien eta abeltzainen interesak babesteagatik” izenekoa, eta 710002 71220 4819 412102 partida, “EHNERentzako dirulaguntza, nekazarien eta abeltzainen interesak babesteagatik” izenekoa; hurrenez hurren 85.542 euroko eta 46.658 euroko zuzkidura dute.

Aipatutako partidetan hasiera batean egindako aurrekontuko diru-izendapena ez da aski UAGN eta EHNE erakundeen 2019ko jarduketei erantzuteko, eta, horregatik, hasieran aurreikusitako aurrekontu zuzkidura horiek handitzea planteatzen da, gauzatutako ekintzek eragindako gastuak finantzatzeko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte atzeratu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta krediturik ez badago edo kontsignatutakoa aski ez bada, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, kreditu berezi bat eta/edo kreditu-gehigarri bat emateko.

1. artikulua. Kreditu-gehigarriak.

2019ko gastuen aurrekontuko kreditu-gehigarri hauek ematen dira:

a) "UAGNrentzako dirulaguntza, nekazarien eta abeltzainen interesak babesteagatik" izeneko 710002 71220 4819 412100 partidan, 50.000 eurokoa.

b) "EHNErentzako dirulaguntza, nekazarien eta abeltzainen interesak babesteagatik" izeneko 710002 71220 4819 412102 partidan, 30.000 eurokoa.

2. artikulua. Kreditu-gehigarrien finantzaketa.

Kreditu-gehigarrien finantzaketa "Nekazarien erakunde profesionalentzako laguntza Nekazari-tza Politika Bateratuaren berri emateko" izeneko 710001 71230 4819 414200 partidaren kargura egingen da, 80.000 euroko zenbatekoarekin.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarri bat ematen duena Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2019ko azaroaren 13an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko kreditu-gehigarri bat ematen duen Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko kreditu-gehigarri bat ematen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia (10-19/LEY-00013).

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarri bat ematen duena Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko

ATARIKOA

NUPen Finantzaketarako Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak 2018ko azaroaren 12an hartutako erabakiaren bidez, 2019rako finantzaketaren kopuruak zehaztu ziren; egiturazko finantzaketari eta emaitzen araberakoari 60.709.749 euro dagozkie.

Bilkura horretan, erabaki zen 900.000 euroko aldea, hau da, Jarraipen Batzordeak erabakitako egiturazko eta emaitzen araberako finantzaketarako erabakitakoaren eta "NUPen finantzaketarako hitzarmena" izeneko 411001 41210 4455 322300 partidan jasotakoaren artekoa, ordainduko dela Nafarroako Aurrekontu Orokorrei zuzenketa edo aurrekontu aldaketa eginez 2019ko ekitaldian bertan.

2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 27/2018 Foru Legean 59.809.749 euroko finantzaketa aurreikusten da Nafarroako Unibertsitate Publikorako kontzeptu horiengatik ("NUPen finantzaketarako hitzarmena" izeneko 411001 41210 4455 322300 partida).

Jarraipen Batzordeak 2019ko urriaren 3an egindako bilkuran erabaki zuen 900.000 euroko

finantzaketa sustatzea hartutako konpromisoak betetzeko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehenengo paragrafoak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte atzeratu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta kreditua ez bada aski, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, kreditu-gehi-garri bat ematekoa. Era berean, bigarren paragrafoan xedatzen du kreditu-gehi-garria edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri

batzuekin finantzatzen ahal dela, Parlamentuak zuzenketen ondorioz edo foru lege honen xedapenak direla-eta berariaz onetsitako kredituetatik datozenak barne, edo ekitaldi ekonomiko horretan berean egiaz izandako edo aurreikusitako sarrera handiagoen kargura.

1. artikulua. Kreditu-gehi-garria ematea.

900.000 euroko kreditu-gehi-garria ematen da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketa beharrei erantzuteko.

Kreditu-gehi-garri hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
411001 41210 4455 322300 partida, "NUPen finantzaketar izenekoa" ako hitzarmena"	900.000,00

2. artikulua. Kreditu-gehi-garriaren finantzaketa.

Kreditu-gehi-garri hau finantzatuko da indarreko gastu eta sarreren aurrekontu indarduneko partida hauetan dagoen kreditu erabilgarriaren kargura, partida bakoitzetik honenbeste:

Gastuen aurrekontuko partida	Zenbatekoa
410001-41800-7609-325108 (E) partida, "Sunbillan ikastetxe berria eraikitzeko proiektua" izenekoa	50.000,00
410001-41800-7609-325109 (E) partida, "Castejongo Dos de mayo ikastetxe publikoa handitzeko proiektua izenekoa	24.000,00
420002-42120-4609-322100 (E) partida, "Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko" izenekoa	150.000,00
720000-71510-4700-414102 partida, "Nafarroako Ubidearen bidezko ureztaketan kanona. Handitzearen 1. fasea" izenekoa	271.000,00
720004-71630-7700-412105 (E) partida, "Abeltzaintzako ustategietan biosegurtasuna hobetzeko inbertsioak" izenekoa	250.000,00

Sarreren aurrekontuko partida	Zenbatekoa
830004-83310-3910-000000 partida, "Zehapenen ondoriozko sarrerak" izenekoa	155.000,00

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Navarra Suma talde parlamentarioak Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldi-bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldi-bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Lege proposamena,
zeinaren bidez aldatzen baita Osasun
laguntza espezializatuko i-
txaronaldien bermeei buruzko uztai-
laren 2ko 14/2008 Foru Legea.**

HITZAURREA

Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 25. artikulua xedatzen du Lurralde arteko Kontseiluak esparru-irizpideak erabakiko

dituela Osasun Sistema Nazionaleko prestazioetarako gehieneko eskuratze-denbora bat bermatzeko. Horiek errege dekretuz onetsiko dira. Halaber esaten du ezen autonomia erkidegoek beren zerbitzu-zorroak eskuratzeko gehieneko denborak zehaztuko dituztela, esparru horren barrenean.

Uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legearen bidez, arreta espezializatuko itxaronaldien bermeak arautu ziren Nafarroan. Lege horrek, une hartan, hobekuntza bat ekarri zuen herritarrek Osasun Sistema Publikoko arreta espezializatuaren erantzute-denbora zela-eta zeuzkaten eskubideetan; besteak beste, gehieneko erantzute-aldi batzuk ezarri zituen ebakuntza kirurgikoetarako, proba diagnostiko programatugetarako eta osasun-laguntza espezializatuko kontsultetarako, eta horrekin Nafarroa autonomia erkidegoetan lehenengoetako bat izan zen prestazio-katalogo zabal baten gehieneko itxaronaldiak arautzen.

Uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen apirilaren 26ko 21/2010 Foru Dekretuaren bidez, 120 eguneko gehieneko itxaronaldia duten prozedura kirurgikoak arautu ziren; halaber, ezarri zen osasun laguntza espezializatuko zein espezialitatetan den aplikatzekoa itxaronaldien bermea, eta zehaztu zen zein egoera pertsonal justifikatutatik erator daitekeen legez bermatutako gehieneko itxaronaldiaren bermea etetea edo galtzea.

Uztailaren 15eko 1039/2011 Errege Dekretuaren bidez esparru-irizpideak ezarri ziren, prozesu kirurgiko jakin batzuetarako gehieneko eskuratze-aldia bermatzekoak.

Denboraren joanak ekarri du Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legearen alderdi jakin batzuk hobetzeko modua egotea, gehieneko itxaronaldiei eta arlo honetan profesionalek eta herritarrek parte hartzeko mekanismoei dagokienez. Beste autonomia erkidego batzuek urte

hauetan zehar garatu izan dituzte alderdi horiek beren araudietan, gehieneko itxaronaldiak direla eta.

Osasunaren arloko kudeaketak apustu argia egin behar du osasun arloko profesionalek eta herritarrek parte har dezaten osasun-erakundeen estrategia eta proiektuen definizio, ebaluazio eta jarraipenean, bai eta erabakitze-organoetan ere; hartara, ezinbesteko gertatzen da osasun erakundeen gardentasuna eta kontu-ematea hobetzea, halatan errazte aldera praktika egokien identifikazioa, hobekuntza jarraitua eta herritarren hautatze-eskubidea.

Nafarroa, urteetan zehar, nazio-mailan nabarmendu da osasunaren arloan per capita aurrekontu handienak edukitzeagatik eta herritarrek osasun sistema publikoari buruz egiten duten balorazio onarengatik; horrenbestez, beharrezkoa da aurre-rapausoak ematea Nafarroako herritarrek osasun-prestazioei dagokienez dauzkaten berme-eskubideetan, Foru Komunitateak jarrai dezan erreferentziazkoa izaten bere osasun sistema publikoaren kalitatearengatik.

Osasungintzako informazio- eta komunikazio-teknologietan eta berrikuntzan izandako aurrerapenak modua ematen du osasun sistemen informazioa eta informazio publikoaren kudeaketa hobetzeko.

Itxaronaldiei dagokienez, eskuragarritasunaren aldetik herritarren arazo handienetako bat izaten segitzen du osasun laguntza espezializatuko hurrengo kontsultetarako edo berrikuspenetarako itxaronaldiak, zeinak pixkanaka okerrera egin baitu Nafarroan azken urteetan. Haiei buruzko informazio pertsonalizaturik zein publikorik ez dago, eta horrek osasun-laguntzaren kalitateari dagokionez ekar dezakeen arazoa handiagoa izan daiteke, askotan, are lehenengo kontsultetarako itxaronaldiarena baino.

Hurrengoak diren kontsultetan edo berrikuspenetan, osasun laguntza espezializatuko gehieneko itxaronaldietarako eskubidea ez dago legez bermatuta inongo autonomia erkidegotan. Beharrezkoa da informazioa eta gehieneko itxaronaldiak bermatzea hurrengoak diren kontsultetarako eta prozesu onkologikoen berariazko tratamenduei hasiera emateko ere —minbizia egun Nafarroako heriotzen arrazoi nagusia baita—, berme hori pertsonaei ematen zaizkien osasun-zerbitzuen kalitatea hobetzeko elementu eztabaidaiezina baita.

Gainera, komeni da gehieneko itxaronaldien kontaketa egun baliiodunetan egin ordez egun naturaletan egitea, halatan saihestearren ekitaterik eza egotea osasun sistema publikorako sarbi-

dean, pertsona horiek itxaron-zerrendetan zer egunetan sartu diren, horren arabera.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea, jarraian adierazten den bezala:

Bat. 1. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

«1. artikulua. Foru legearen xedea.

1. Foru lege honek xede du erantzute-bermeak ezartzea programatua eta ez-larrialdikoa den osasun laguntza espezializatuan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egin beharreko ebakuntza kirurgikoei, kanpoko kontsultei —lehenengoak zein hurrengoak edo berrikuspenak— eta proba diagnostikoei dagokienez.

2. Halaber, xede du erantzute-bermeak ezartze prozesu onkologikoen tratamenduei hasiera emateari dagokionez».

Bi. 3. artikulua 1., 2., 4. eta 6. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute aurrerantzean:

«1. Nafarroako osasun sistema publikoan programatua eta ez-larrialdikoa den osasun laguntza espezializatua behar duten gaixoak honako epe hauetan artatuak izanen dira:

a) Osasun laguntza espezializatuko kontsultak, 1. mailako lehentasuna duen lehenengo kontsultakoak edo hobetsiak: fakultatiboak eskaera egiten duenetik 14 eguneko gehieneko epea bermatzen da.

b) Osasun laguntza espezializatuko kontsultak, 2. mailako lehentasuna duen lehenengo kontsultakoak: fakultatiboak eskaera egiten duenetik 30 eguneko gehieneko epea bermatzen da.

c) Osasun laguntza espezializatuko 1. mailako lehentasuneko hurrengo kontsultak edo berrikuspenak: fakultatiboaren indikazio-egunetik 45 eguneko gehieneko epea bermatzen da.

d) Osasun laguntza espezializatuko 2. mailako lehentasuneko hurrengo kontsultak edo berrikuspenak: fakultatiboaren indikazio-egunetik 90 eguneko gehieneko epea bermatzen da.

e) Osasun laguntza espezializatuko 3. mailako lehentasuneko hurrengo kontsultak edo berrikuspenak: fakultatiboaren indikazio-egunetik 120 eguneko gehieneko epea bermatzen da.

f) Programatuak eta ez-larrialdikoa diren proba diagnostikoak, 1. mailako lehentasunekoak

edo hobetsiak: fakultatiboaren indikazio-egunetik 14 eguneko gehieneko epea bermatzen da.

g) Programatuak eta ez-larrialdikoak diren proba diagnostikoak, 2. mailako lehentasunekoak: fakultatiboaren indikazio-egunetik 30 eguneko gehieneko epea bermatzen da.

h) Ebakuntza kirurgikoak: fakultatiboaren indikazio-egunetik 120 eguneko gehieneko epea bermatzen da. Bihotzeko kirurgian, 60 eguneko gehieneko epea bermatzen da; eta kirurgia onkologikoan, 30 eguneko gehieneko epea.

i) Ebakuntza kirurgikoak, baldin eta haietan itxaronaldiak ez badu kalterik ekartzen gaixoaren osasunarentzat: 180 eguneko gehieneko epea bermatzen da, fakultatiboaren indikazio-egunetik hasita.

j) Prozesu onkologikoetan tratamenduari hasiera ematea: fakultatiboaren indikazio-egunetik 30 eguneko gehieneko epea bermatzen da.

2. Ulertuko da aurreko apartatuan ezarritako epeak egun naturaletan kontatzen direla».

«4. Hurrengo den kontsulta edo berrikuspena da gaixo bati patologia jakin baten jarraipena egiteko egiten zaiona, espezialitate berean».

«6. Erregelamendu bidez ezarriko dira 1. apartatuan aipatzen diren 1., 2. eta 3. mailetako lehentasunak zehazteko prozedurak, espezialitateak eta irizpideak».

Hiru. 7. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

«1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hilerio informazioa emanen du, Nafarroako Gobernuaren web orriaren bitartez eta herritar guztien eskura jarritako beste hedabide ofizial bartzuen bitartez, Nafarroako Osasun Sistema Publikoaren zentro eta zerbitzu bakoitzean honako hauetarako dagoen gaixo-kopuruari eta batez besteko itxaronaldiari buruz: prozedura kirurgiko ezberdinak, lehenengo kontsulta espezializatua, hurrengoak diren kontsultak edo berrikuspenak, prozesu onkologikoetan tratamenduari hasiera ematea eta proba diagnostikoak».

Lau. 7. artikuluar 3. apartatua gehitzen zaio. Honako testu hau izanen du:

«3. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Nafarroako itxarote-zerrendetako gaixoen Erregistroan dauden pertsonen banakako informazioa eskuragarri ipiniko die, jakitekoa kirurgiarako, lehenengo edo hurrengo kontsultarako, proba diagnostikorako edo prozesu onkologikoetako tra-

tamenduari hasiera emateko kalkulatu den data, foru lege honetan jasota baldin badaude».

Bost. 9. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

«Osasun Departamentuak, maiatzaren 23ko 605/2003 Errege Dekretua betetzeko, itxarote-zerrendei buruzko txosten bat eginen du sei hilean behin, eta hartan ezinbestez jasoko ditu, gainera, osasun-zentro eta espezialitate bakoitzean zenbat gaixoren kasuan gaintzen diren berme-epeak, zein jardueratan eta zein eskaera dagoen; bai eta itxarote-zerrendak kontrolatze aldera aparteko lanalditan eta zentro itunduetarako deribazioetan osasun-zentro eta espezialitate bakoitzak erabilitako baliabideak ere. Txosten hori Nafarroako Parlamentuari aurkeztuko zaio urte bakoitzeko irailean eta otsailean. Itxarote-zerrendei buruzko informazioa betiere doitu zaie unean-unean aplikatzekoak diren oinarriko araudiari eta errege dekretuei».

Sei. Bigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

«Bigarren xedapen gehigarria. Gaixoen erreregistroan inskribatzea.

Ahalbidetuko da Nafarroako itxarote-zerrendetan dauden gaixoen Erregistroan ofizioz inskribatzea gaixo guztiak, zeinak baitaude, foru lege honek indarra hartzen duen unean, lehenengo edo hurrengo den kontsultarako edo berrikuspenerako, proba diagnostiko baterako, ebakuntza kirurgiko baterako edo tratamendu onkologiko bati hasiera emateko itxarote-zerrendan».

Zazpi. Hirugarren xedapen gehigarria eranstean da. Honako testu hau izanen du:

«Hirugarren xedapen gehigarria. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxarote-zerrenden jarraipen eta kontrolera bideraturiko Partaidetzako Nafar Kontseilua.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxarote-zerrenden jarraipen eta kontrolera bideraturiko Partaidetzako Nafar Kontseilua sortzen da, profesionalek eta herritarrek osasun-laguntzarako eskariaren eta haren informazio-sistemen jarraipenean eta kontrolean parte hartzeko tresna gisa.

2. Erregelamendu bidez ezarriko dira, sei hila-beteko gehieneko epean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxarote-zerrenden jarraipen eta kontrolera bideraturiko Partaidetzako Nafar Kontseiluaren eginkizunak, osaera eta funtzionamendua.

3. Kontseiluaren eginkizunen artean sartuko dira, gutxienez ere, itxarote-zerrendetan gaixoak sartzeko eta haietatik ateratzeko protokoloak eza-gutu, ebaluatu eta proposatzea, informazio-sistemen eta erregistroen informazioaren kalitatea bermatzeko hobekuntzak proposatzea eta itxarote-zerrenden kudeaketa hobetuko duten antolamendu-neurriak proposatzea.

4. Haren osaerak bermatuko du gutxienez ere Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalak egon daitezela, bai eta sendagileen eta erizainen lanbide-elkargoen ordezkariak, gaixoen elkarleen ordezkariak eta desgaitasunaren eta adindunen arloetako entitateen ordezkariak ere».

Azken xedapenetako lehenengoa. Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2018 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen apirilaren 26ko 21/2010 Foru Dekretua aldatzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak onetsiko du alda dadila apirilaren 26ko 21/2010 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2018 Foru Legea garatzeko Erregelamendua, arau-aldaketa honi egokitze aldera eta berme-sistemaren barruan sartze aldera foru dekretu horretan jaso gabe dauden laguntza espezializatuko kontsulten espezialitate eta azpiespezialitate guztiak. Halaber, berme-sistemaren proba diagnostikoen barruan sartuko ditu baheketa-programekin zerikusia duten probak.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bederatzi hilabeteren buruan hartuko du indarra, salbu eta azken xedapenetatik lehenengoan ezarritakoari dagokionez.

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak 8.d) artikuluan xedatzen duenez, erakunde horrek zilegi izanen du, bere ekimenez eta bere fiskalizazio programan oinarrituta, Parlamentuari jakinarazteko modukotzat jotzen dituen txostenak gitea.

Kontuen Ganberak eginiko zenbait jarduketatan, Nafarroako Tributu Ogasunak, oinarri harturik Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 105.1 artikuluan ezarritakoa, ezezkoa eman die kontrolerako eta fiskalizatorako organoak eginiko informazio-lagapeneko eskaerei.

Berriro ez daitezzen gerta halako egoerak, non Tributu Ogasunak informazioa ukatzeak eragotzi edo mugatu egiten duen Kontuen Ganberaren fiskalizazio ahalmena, aitortuta dagoena 19/1984 Foru Legearen 1. artikuluan eta Foru Hobekuntzaren 18. bis artikuluan, beharrezkoa gertatzen

da Nafarroako Tributuak buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 105.1 artikulua aldatzea; izan ere, zerga-informazioaren erreserbarako eskubideak ez luke eraginik izan beharko Kontuen Ganberarengan, honek bere eginkizunen jardunean Ogasunari datuak edo jardun horretarako premiazkoa duen informazioa eskatzen dizkionean. Zerga-informazioaren erreserbarako eskubidea ez denez eskubide absolutua, datuak hirugarrenei –kasu honetan, Kontuen Ganberari– laga edo jakinaraztea posible izanen da baldin lege mailako arau batek ahalbidetzen badu, laga-

tze horrek oinarri zilegia bada eta proportziozkoa bada.

Artikulu bakarra. 105.1 artikularen g) letra aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“g) Elkarlana Comptos Ganberarekin, haren fiskalizazio eginkizunen jardunaren barrenean”.

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, 103/2017 Foru Dekretuaren aurka jarritako errekurtsioak direla-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaien ondoren Nafarroako Gobernuak baliatuko duen hizkuntz politikari buruzkoa.

INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkezturiko interpelazioa erretiratu izanaz. Interpelazioa 103/2017 Foru Dekretuaren aurka jarritako errekurtsioak direla-eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako

epaien ondoren Nafarroako Gobernuak baliatuko duen hizkuntz politikari buruzkoa, eta 2019ko urriaren 11ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/ITP-00009).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Arkeologiako plan zuzendaria taxutu dezan.

KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Arkeologiako plan zuzendaria taxutu dezan, Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetu

dadin. Mozioa 2019ko urriaren 15eko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/MOC-00059).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da AP-68 autobidearen ibilbide osoa bidesaririk gabekoa utz dezan.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak premiatzen baita AP-68 autobidearen ibilbide osoa bidesaririk gabekoa utz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

2017ko abenduaren 2an, ibilgailu astunek 232 errepide nazionalean Tuteratik Zanbranara bitarte zirkulatzeko debekua argitaratu zuen Barne Ministerioak Estatuko Aldizkari Ofizialean Neurri horrek Tutera eta Murchante bitartean AP-68 autobidera sartzeko dagoen sarbidera joatera, 121-C errepide nazionalean, zeinak egunean 1.000 eta 2.000 kamioi bitarteko trafiko-igoera pairatu behar baitu.

Bizkitartean, AP-68 autobidea gutxiegi erabiltzen da; autobide hori 1975etik 1980ra bitarte eraiki zen, eta 295 kilometro luze da, horietako 90 Cortes eta Lodosa bitartean.

Nafarroako Erribera lehen mailako bi gune ekonomikoren erdian dago: Euskal Autonomia Erkidegoa eta Katalunia. Halere, kokagune pribilegiatu horri ezin zaio etekinik atera, bidesarien kostuak mugatzen duelako dagoen bide-azpiegitura handi hori.

AP-68 autobideak Nafarroako Erriberarako bizkarrezur ekonomiko eta soziala izan beharko luke, baina horretarako ezinbestekoa da bidesaria kentzea. Zoritxarrez, 2000n, Alderdi Popularreko José María Aznarren Gobernuak 2026ra arte luzatu zuen autobidearen emakida –2011n bukatzen zen berez–, halako moduan non ezinezkoa egin zuen autobidearen erreskatea.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du AP-68 autobidearen ibilbide osoa bidesaririk gabe utzi dezan, beste autobide batzuen kasuan egin duen moduan: AP-1 Burgos/Armiñon, AP-4 Sevilla/Cádiz eta AP-7 Alacant/Tarragona.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du aztertu beharreko mekanismoak azter ditzan, AP-68 autobidea bidesaririk gabe utzi eta doakoa izan arte AP-68 autobidea doakoa izan dadin erabiltzaileentzat 2020ko urtarrietik aitzina, Errioxan eta Aragoin autobide horren kasuan erabilitako ereduaren gisakoak erabiltzita.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du azpiegiturak ukitutako beste autonomia erkidegoekin batera eska dezan AP-68 autobidea doakoa izatea, neurri horren eraginez sobera diren langileak birkokatzeko neurriak barne.

Iruñean, 2019ko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Mozioa. Horren bidez, premiatzen da gure erkidegoan sexu-askatasunaren eta -intimitatearen aurkako delituak borrokatzera.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez premiatzen baita gure erkidegoan sexu-askatasunaren eta -intimitatearen aurkako delituak borrokatzera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, gure erkidegoan sexu-askatasunaren eta -intimitatearen aurkako delituen kontra borrokatzera premiatzen da.

2016ko uztailaren 7an talde-bortxaketa bat gertatu zen Iruñeko Sanferminetan. Biktimak berehala jarri zuen salaketa, eta poliziak handik ordu gutxira atxilotu zituen bere buruari "La Manada" deitzen zioten taldeko bost kideak, talde-bortxaketa egin izanaren akusaziopean. 2018ko apirilaren 26an, lehen epaia eman zen; horren arabera, gertatutakoa ez zen bortxaketa izan, eta talde horretako bost kideei bederatzina urteko espetxe-zigorra ezarri zien sexu-abusuagatik.

2019ko martxoaren 7an, ministerio publikoak Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren aurkako kasazio-errekurtsoa aurkeztu zuen Auzitegi Gorenean, uste baitzuen bost gizon horiek sexu-erasoa egin zutela, eta ez sexu-abusua. Iragan ekainaren 21ean, Auzitegi Gorenak, azkenean, hamabosna urteko espetxe-zigorra ezarri zien "La Manada" taldeko kideei.

Gure herrian hori bezalako gertakariak sarri gertatzen badira ere, "La Manada"-ren kasuak balio izan du eztabaida publikora ekartzeko sexu-erasoen errealitatea, biktimen zaurgarritasuna, Zigor Kodearen nahasmendua, oniritziaren kontzeptuaren azterketa... alegia, sexu-indarkeria inolako zalantzarik gabeko auzi gisa hartzeko beharra.

Gainera, kasu honek balio izan du, hain mediatikoa izaki, kontzientzia soziala areagotzeko denbora gehiegiz zoritxarrez ezkutuan gordetako errealitate bati dagokionez, are gehiago kontuan hartzen badugu Barne Ministerioak jakinarazi zuela sexu-askatasunaren aurkako 10.844 salaketa aurkeztu zirela 2016an.

2018an, fiskaltzak 18.986 eginbide abiarazi zituen sexu-askatasunaren aurkako delituak direla-eta: aurreko urtean baino % 23 gehiago.

Nafarroan, fiskaltzak 2018an argitaratutako azken txostenaren arabera, aurreko urteetako gorako joera mantentzen da. Sexu-erasoen kopurua % 153 igo zen 2018an, eginbideak 41 izatetik 104 izatera igaro baitziren. Sexu-indarkeria dela-eta abiarazitako prozedurak 430 izan ziren; hau da, hilabeteko 35 baino gehiago eta 2017an baino % 92 gehiago.

Sexu-indarkeriako gertakarien larritasunak adi egotera behartzen gaitu, hain konplexua den fenomeno hori prebenitzailekoan eta horri aurre egiterakoan.

Auzitegi Gorenak "La Manada"-ren kasuan emandako epaia eta gero argi geratu da Zigor Kodea aldatu beharra dagoela, baina esku artean dauzkagun datuek orobat erakusten digute behar-beharrezkoak direla politika publikoak sexu-erasoak prebenitzeko, sentsibilizatzeko eta biktimak artatzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du txosten bat taxutu dezan sexu-askatasunaren eta -intimitatearen aurka gure erkidegoan egindako delituak direla-eta. Txostena Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko da, eta bertan egoeraren analisi deskribatzaile bat, biktimen, erasotzaileen nahiz delitua egiten den lekuen profila eta abar jasoko dira.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prebentziorako eta sexu-erasoen biktimak artatzeko foru estrategia bat planteatu dezan, azterlan hori nahiz 14/2015 Foru Legeko ekintza planaren ebaluazioa oinarri.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du udalei nahiz toki entitateei lagun diezaizen gune arriskutsuei buruzko udal mapak egiten, eta, mapa horren arabera, segurtasuna areagotzeko egin beharreko ekintzak egin dituzaten.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gogoan har dezan genero indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko taldeetan indarkeriaren arloko adituak sartzeko aukera, 14/2015 Foru Legean jasotzen den gisa.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-partida bat sar dezan 2020ko aurrekontuetan, Nafarroan atletismoa egiteko instalazio homologatu bat eraiki edo egokitzeko, bai eta kirola urte osoan zehar egitea ahalbidetuko duen pista estali bat ere.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aurrekontu-partida bat sar dezan 2020ko aurrekontuetan, Nafarroan atletismoa egiteko instalazio homologatu bat eraiki edo egokitzeko, bai eta kirola urte osoan zehar egitea ahalbidetuko duen pista estali bat ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura eta Kirol Batzordean eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-partida bat sar dezan 2020ko aurrekontuetan, Nafarroan atletismoa egiteko ins-

talazio homologatu bat eraiki edo egokitzeko, bai eta kirola urte osoan zehar egitea ahalbidetuko duen pista estali bat ere.

Kultura eta Kirol Batzordeak 2019ko martxoaren 5ean egindako bilkuran Nafarroako Atletismo Federazioaren ordezkariak azaldu zuten Nafarroan premia larria dagoela atletismoa egiteko instalazio homologatu bat edukitzeko, bai eta eguraldi txarra dagoenean kirola egitea ahalbidetuko duen pista estali bat ere.

Zortzi hilabete joan dira, eta egoerak bere horretan dirau nafar atletentzat; izan ere, entrenamenduak alde batera utzi behar dituzte euria ari duenean, eta lehiaketako atletismorako homologatuta ez dauden eta egokiak ez diren espazioetan lehiatu behar dute. Berdin okerra da Nafarroan oinarrizko atletismoa egiten duten milaka eta milaka neska-mutikoren egoera ere, ezin baitzaie eskaini beren kirola egiteko gutxieneko baldintzarik.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurrekontu-partida bat sar dezan 2020ko aurrekontuetan, Nafarroan atletismoa egiteko instalazio homologatu bat eraiki edo egokitzeko, bai eta kirola urte osoan zehar egitea ahalbidetuko duen pista estali bat ere.

Iruñean, 2019ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2020an obrak lizita eta has ditzan Tuterako La Atalaya zentroan gutxienez ere bizikidetasun-unitate berri bat eraikitzeko.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2020an obrak lizita eta has ditzan Tuterako La Atalaya zentroan gutxienez ere bizikidetasun-unitate berri bat eraikitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Eskubide Sozietako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Eskubide Sozietako Batzordean eztabaidatzeko:

Informazio-eskari bati (10-19/PEI 00292) emandako erantzunean Nafarroako Gobernuak adierazi duenez, 2019ko urriaren 30ean 13 pertsonakoa zen ezgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza-toki bat lortzeko itxarote-zerrenda Tuterako La Atalaya zentroan.

Horietatik, 3k bakarrik daramate itxaroten 6 hilabete baino gutxiago. Gizarte Zerbitzuen Zorroak gehieneko epe hori ezartzen du egoitza-arretaren prestazioa, zeina Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legeak eta zorroak berak eskubide subjektibo gisa ezartzen baitu, eman dadin. Gainontzeko 10 pertsonak 18 hilabete eta 5 urte bitarte daramate itxaroten.

Zentro horretan eguneko zentroko toki bat lortzeko itxaron beharreko denborari dagokionez, berriz, Nafarroako Gobernuaren erantzun horren arabera, egun horretan itxarote-zerrendan zeuden

3 pertsonak 7 eta 17 hilabete bitarte egon behar izan dute zain; hau da, Zorroak ezartzen duen 6 hilabeteko epea baino gehiago. Gainera, oso litekeena da itxarote-zerrenda hori heldu den ikasturtearen amaiera aldean handitzea; izan ere, Torre Monreal ikastetxean ezgaitasuna daukaten ikasle-kopurua handia da, eta horiek eguneko zentroko erabiltzaile izan litezke.

Tuterako La Atalaya da ezgaitasun intelektuala duten pertsonentzako egoitza-zentro eta eguneko zentro bakarra Erriberan, eta beterik dauzka bere toki guztiak (egoitzako 50ak eta eguneko zentroko 24ak). Ez da aurreikusten toki horiek libratuko direnik, eta espazio fisikorik ere ez dago toki gehiago egon ahal izateko.

Horregatik, eta elkarbizitza-eredu txikiagoen aldeko apustua egiten bada ere, lehenbailehen heldu behar zaio arazo horri eta handitu egin behar da ezgaitasunen bat daukaten pertsonentzako egoitza-tokien kopurua Erriberan, horrek eguneko zentroko tokiak libratzea ekarriko baitu bidenabar (une honetan, egoitza-toki bat nahi dutenek hartzen dituzte toki horiek).

La Atalaya zentroak –titulartasun publikokoa baita– badu behar adina lur bertan elkarbizitza-unitate berriak sortu ahal izateko, eta, gainera, Tuterako hiriarekin behar bezala komunikatuta dago.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2020an obrak lizita eta has ditzan Tuterako La Atalaya zentroan gutxienez ere bizikidetasun-unitate berri bat eraikitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du obrak bukatuta daudenean zentro horretako egoitza-tokien kopurua handitu dezan itxarote-zerrenda betetzeko eta Gizarte Zerbitzuen Zorroan ezarritako betekizunei erantzuteko.

Iruñean, 2019ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Suizidioaren Prebentziorako Estrategia Nazional bat taxutu dezan, eta Nafarroako Gobernua, Suizidioaren Prebentziorako Nafar Estrategia integral bat presta dezan.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Suizidioaren Prebentziorako Estrategia Nazional bat taxutu dezan, eta Nafarroako Gobernua, Suizidioaren Prebentziorako Nafar Estrategia integral bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Espainiako Suizidioaren Behatokiak argitaratutako azken datuen arabera, 2017an 3.679 pertsonak egin zuen bere buruaz beste: egunean 10, bi ordu eta erditik behin bat. Lautik hiru (2.718) gizona ziren, eta lautik bat (961) emakumeak. Datu horien arabera, igoera % 3,1eko izan zen aurreko urtearen aldean. Suizidioa da Espainian kanpo-arrazoiengatik hilkortasun-arrazoi nagusia. Suizidio-tasa bere horretan mantendu da mende honetan: 100.000 biztanleko 7-8 hildako (10-13 gizon eta 3-4 emakume).

Espainian beste herrialde batzuetan baino nabarmen txikiagoa da suizidio-tasa. Tasarik handienekoen artean daude Lituania, Hego Korea, Eslovenia, Letonia, Japonia, Hungaria, Belgika, Estonia, Estatu Batuak, Polonia, Finlandia, Frantzia, Australia eta Suitza.

Suizidioa lehenasunez jorratu beharreko arazo bat da Espainian eta Nafarroan, hilkortasunean duen inpaktuagatik ez ezik ukitutako pertsonengan nahiz haien familiarengan eta inguru hurbilean eragiten duen sufrikario fisiko eta emozionalagatik ere. Nafarroan suizidioen tasa batez besteko nazionalaren antzekoa da: 100.000 biztanleko 7,36 2017an (batez besteko nazionala 100.000 biztanleko 7,91koa izan zen).

2014an, Nafarroa aitzindaria izan zen nazioan arazo horri dagokionez. Suizidioaren prebentziorako protokolo bat taxutu zuen horretarako preseski sortutako lantalde tekniko batek, eta gero eratu zen jokabide suiziden prebentziorako eta jarduteko departamentuarterko batzordea, auziari modu integralean ekiteko ikuskera diziplinarteko batekin.

Bestalde, 2017ko apirilean, talde mistoari atxikita zeuden UPN-Unión del Pueblo Navaroren diputatuek legez besteko proposamen bat aurkeztu zuten Diputatuen Kongresuan, suizidioaren aurkako prebentziorako plan nazional bat taxutu zedin. Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak legez besteko proposamena eztabaidatu eta onetsi zuen 2017ko azaroaren 14an egindako bilkuran. Ez da planik egin, nahiz eta sei hilabeteko epean taxutu behar zen.

Nafarroari dagokionez, Espainian suizidioaren prebentziora ekiterakoan erreferentzia izan arren, arlo horretan azken urteotan ez da neurri eraginkorrik ezarri; beste erkidego batzuek, aldiz, aurreabidea egin dute suizidioaren prebentziorako protokolo eta estrategietan; halatan, une honetan, Madril, Katalunia edo Valentziaren atzetik dago Nafarroa arazo hori jorratzeari dagokionez. Euskal Autonomia Erkidegoak estrategia bat argitaratu du orain dela gutxi, eta beste autonomia erkidego batzuek –Gaztela eta Leon eta Asturias, kasu– protokoloak taxutu dituzte.

Nazioartean, Estatu Batuak, Kanada, Frantzia eta Belgika erreferenteak dira suizidioaren prebentziora buruzko estrategietan eta ikerketan. Eskandinaviako herrialdeetan, non suizidio-tasa oso handia izan ohi den, neurri eraginkorrik ezarri dituzte, eta horiei esker nabarmen ari dira murrizten tasa horiek.

Nafarroak une honetan ez dauka jokabide suiziden erregistro integratuko sistemarik, eta horrek eragotzi egiten du arazoaren dimentsioa norainokoa den, eta ez da baliabiderik esleitu suizidioaren prebentziorako berriazko ekintzak ezartzeko.

Nafarroan suizidioaren prebentziorako protokoloa berriz definitu beharra dago, plan nazionalarekin bat datorren estrategia integral baten baitan definitu ere, hartara identifikatu ahal izanzen baitira prebentziorako neurri eraginkorrei ekiteko eta ikeritzeko jardunbide egokiak eta sinergiak. Estrategia horretan honako beharrian hauek jaso beharko lirateke, besteak beste: suizidio-saiakeren eta burututako suizidioen informazio eta erregistro integratuko sistemak hobetzea; arazoaren norainokoa egoki zehaztuko duen, esku hartzeko beharrianak identifikatuko dituen eta ekintzak birdefinituko dituen behatoki bat sortzea; jokabide eta asmo suiziden kasuan osasungintzako profesionalengana azkar iristeko zirkuituak definitzea; laguntza-mailen artean eskuragarritasuna eta jarraitutasuna sustatuko duen laguntza-plan bat definitzea eta ezartzea; informazioko webgune bat sortzea; jokabide edo asmo suizidak dauzkaten pertsonen jarraipena egiteko telefonoa sustatzea; laguntza zentralizatuko eta koordinazioko telefono bat eta informazio gune bat abian jartzea, prestakuntza

jaso duten langileen ardurapean; osasun arlokoak nahiz osasun arlokoak ez diren profesionalei prestakuntza emateko programa bat; gizarte-sentsibilizazioko ekintzak egitea, eta jokabide suizida duten pertsonen edo suizidioa burutu dutenen senitartekoei eta ingurukoei laguntza emateko programa bat.

Suizidioaren prebentziorako Nafarroako estrategia taxutzen parte hartuko dute inplikaturatuta dauden profesionalek eta Besarkada-Abrazo Elkartek, zeina lan handia egiten ari baita dagoeneko, batik bat ukitutako pertsonen senitartekoei babesa ematen eta lagun egiten.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Suizidioaren Prebentziorako Estrategia Nazionala taxutu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean Suizidioaren Prebentziorako Nafarroako Estrategia integrala taxutu dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bultzada eman diezaion Soria-Tutera A-15 autobia-aren eraikitzeari.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita bultzada eman diezaion Soria-Tutera A-15 autobia-aren eraikitzeari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, Soria-Tutera A-15 autobia-aren eraikitzeari bultzada emateko.

Soria eta Tutera lotuko dituen Soria-Tutera A-15 autobia, aurrerabidea egin ordez, ahaztuta dauka Espainiako Gobernuak. Sustapen Ministerioari ez omen zaio interesatzen gabezia hori –iparraldea eta erdialdea komunikatuta ez egotea– konpontzea, eta, aurrerabidea egin ordez, denbora geldo doa azpiegitura horri –Nafarroatik Madrilera joateko bide naturalari– dagokionez.

Gurelur-ek salatu duenez, obra egiteko 2007an egindako ingurumen-inpaktuaren azterketak, bai eta proiektu osoak ere, badituzte gabezia nahiz irizpide eta zehaztasun faltak; halatan, proiektu hori –lehendik Gobernuaren interes falta pairatzen zuena– nahasmendu hutsa da, inork ere ez baitaki ezer, nahiz eta, berez duen dimentsiogatik, lehentasuna izan beharko lukeen Ministerioaren ekintzen artean.

Ágreda eta Tutera nondik eta nola konektatu zehaztu beharko lirakeen zehazteko ingurumen-irizpiderik ezari gehitzen zio Espainiako Gobernuaren geldotasuna eta interes falta erabatekoa;

hortaz, Sustapen Ministerioak ahaztu egiten du azpiegitura, ez baitu apusturik egiten ez azpiegitura egiteko, ez azpiegitura finantzatzeko, ez Soria Zaragozarekin –Ágredan, Tarazonan eta Borjan barrena– konektatzeko ere balio beharko lukeen bide horren alde egiteko ere.

Beharrezkoa da ezen, behingoz, ibilbide egoiena hauta dezan eta mahai gainean behin betiko ibilbide bat jar dezan, ekonomiaren, praktika-aren eta ingurumenaren aldetiko sendotasunarekin.

Auzi honek eragin nabarmena dauka Nafarroan. Errepide hori lehentasunezko azpiegitura bat da Nafarroako Erriberako herriendako, eta neurri handi batean baldintzatuko du horien etorkizuna. Iruñerrian ere badu eragina. Gure erkidegoak Espainiako hiriburuarekin duen pertsona- nahiz salgai-trafikoaren arabera bide-alternatiba bat behar dute Nafarroako enpresek eta bidaiariek.

Gaur arte egindako urrats bakarrak egin dira PPK eta UPNk 20 milioi inbertitzeko akordioa lortu izanari esker, Ágredatik Matalebrerasera bitarteko tartea eraikitzeiko Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren kargura.

Orain jakin behar duguna da ea Gobernuak aurrera eginen duen ala azkenaldian izan duen jarrera arduragabea izaten jarraituko duen gure Foru Komunitatea Madrilerekin komunikatzeko oinarritzkoa den azpiegitura horri dagokionez.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Azpiegitura hori interes orokorrekoa dela deklaratu dezan eta ahalegin guztia jar dezan proiektua garatzeko.

2. Espainiako Gobernuari exigi diezaion Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorretan A-15ean Soria-Tutera bitarteko tartean inbertitzera bideratutako aurrekontu-partida bete dezan.

3. Azpiegituraren etorkizuna bermatzea ahalbidetuko duten inbertsioak garatuko direla bermatu dezan.

4. Nafarroa eta Madrilaren arteko errepide bidezko komunikazioen oinarritzko ardatza den aldetik, autobia hori eraikitzearen aldeko errebindikazioan eginkizun aktiboagoa izan dezan.

5. Foru administrazioaren eta administrazio zentralaren arteko hitzarmen bat sinatzea susta dezan, obra hori bukatze aldera bi gobernuen arteko konpromiso bat zehaztea eta horri sendotasuna ematea ahalbidetuko duena.

Iruñean, 2019ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalik eta lasterren har ditzan beharrezko neurriak, Arraitz-Orkin zeharbidean ibilgailu astunen iragatea murrizte aldera.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ahalik eta lasterren har ditzan beharrezko neurriak, Arraitz-Orkin zeharbidean ibilgailu astunen iragatea murrizte aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalik eta lasterren har ditzan hartu beharreko neurriak, Arraitz-Orkin zeharbidean ibilgailu astunen iragatea murrizte aldera.

Ultzamako Arraitz-Orkin zeharbidetik iragaten diren kamioien trafikoa kalte handiak eragiten ari da hiri-altzarietan, bai eta galtzadaren bi alboetan dauden etxebizitzetan ere. Ibilgailu astunen joan-

etorria gero eta handiagoa da N-121-A errepidearen eta industrialde baten artean.

Ibilgailu astunak hiru metro zabaleko errepide-tik aldiro pasatzearen ondoriozko bibrazioak eragiten ari dira, besteak beste, pitzadurak azaltzea hormetan, eta horrek kezkatu egiten ditu bizilagunak eta maizterrak. Are gehiago, azken urteotan zehar kalteak gertatu dira zenbait balkoitan, kamioiek zenbaitetan horien kontra jotzen dutelako edo urratu egiten dituztelako.

Bizilagunak eurak izan dira Nafarroako Gobernuari horren berri ahoz eman diotenak, eta orobat eskatu diote, orain dela berrogei urtetik hona egiten ari diren eskaria berretsiz, saihasbide bat egin dadin. Bizilagunen eskariekin batera doazen argazkiak eta bideoak berez dira argigarriak.

Sare sozialen bidez ere hedatu den dokumentazio grafiko horrek erakusten du bizilagunek egunero dauzkaten zailtasunak eta bizi duten arriskua: "ez dago zebra-biderik", eta garraioari beren kamioiak geldiarazi behar izaten dituzte gisa horretako bi ibilgailu, bakoitza norabide batean, gurutzatzen diren bakoitzean.

Arraizko zeharbideak 90 graduko sarrerako bi bihurgune ditu, batere ikusgaitasunik gabekoak, egun arrisku handikoak direnak zirkulazioari begira, ibilgailuen trafikoa handia delako; hori dela eta, sarri gertatzen dira ibilgailu-ilarak.

Argi dago zeharbidea erabat zaharkituta gelditu dela ibilgailuen joan-etorri hori bermeekin hartuko badu; halatan, Arraiza heldzean egun dagoen inbutua egunero zeharkatzen duten langileek eta garraioari aldiro bizi dituzte arrisku-egoerak.

Bizilagunek orain dela bi urte helarazi zizkioten Gobernuari beren balorazioak. Ez orduan, ez orain, ez zitzaion jaramonik egin haien erreibindikazioari.

Kamioilariak ere bat egin dute bizilagunen protestekin. Izan ere, Iraizozko industrialdera ailegatzeko –edo handik itzultzeko– Arraitz zeharkatu behar duten bakoitzean bi bihurgune itxi pasatu behar dituzte eta arreta osoa jarri behar dute igarobidean dauden etxebizitzak aurka ez jotzeko.

Azpitarratu egin behar da ezen, une honetan, Arraizko zeharbidea ez dela ageri Gobernuaren hurrengo proiektuen artean.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du garatu beharreko ekintza guztiak gara ditzan arrisku larriko egoera hori konpontzeko eta amestutako saihebidetara eraike dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du saihebidetara proiektu bat aurkez dezan, horretarako erabilita kontzejuak orain dela 35 urte lagatako lurrak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du bizilagunekiko eta garrailarietarako egiazko konpromisoa azal dezan, proiektua Gobernuaren lehentasunezko proiektua izateko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du bizilagunei konpentsazioen edo dirulaguntzen sistema bat eskain diezaien gehiegizko trafikoaren eta egoera txarraren ondorioz gaizki dauden egiturak konpontzeko, eta Udalarekin lankidetzan jardun dadin egoera horrek kaltetutako hiri-altzariak konpontzeko eta berritzeko.

Iruñean, 2019ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere solidaritate eta sostengua adierazten baitizkio Boliviako Estatu plurinazionalerako presidentea Evo Moralesi.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak dei egiten die nazioarteko komunitateari eta nazioarteko elkartzuneko mugimenduei, eta, halaber, Boliviako Estatu Plurinazionalerako ordena konstituzionala berrezartzearen aldeko mobilizazioerako dei egiten du.

Nafarroako Parlamentuak gogor gaitzesten ditu Bolivian gertatzen ari diren giza eskubideen urraketak, eta aldarri egiten du elkarrizketaren, ordena konstituzionala berrezartzearen eta ahalik eta lasterren behar bezalako berme demokratikoak dituzten hauteskunde batzuk egitearen alde”.
(10-19/DEC-00074)

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, Nafarroako Parlamentuaren eta tokiko korporazio demokratikoen 40. urteurrenaren kariatara egina.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak eta Foru Komunitateko toki entitateek gertakari haien 40. urteurrena ospatzen dute munta historikoko lorpenzat harturik, zeinean nafar gizarteak apustu egin baitzuen demokraziaren, gure autogobernuaren eta gure erakunde- eta eskumen-araubidearen alde.

2. Nafarroako Parlamentuak bere esker ona adierazi nahi die Foru Parlamentuaren I. legegintzaldia 1979ko apirilko hauteskunde-deialdiaren emaitza gisa osatu zuten foru parlamentariari. Legegintzaldi hartan, Legebiltzarra bitarteko bat izan zen garai hartako gizartea kezkatzen zuten ideiak eta proiektuak proiektatzeko, bai eta gune ere Foru Komunitatearen gaur egungo instituzionalizatorako testuez luze eta zabal eztabaidatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak halaber azpimarratu nahi du lehenbiziko toki korporazio demokratiko haien zeregina, elkarbizitza- eta garapen-garai berri bat ireki baitzuten nork bere komunitatean, uste osotzat oinarri hartuta toki erakunde politikoak funtsezko elementua direla haien zerbitzu-konpromisoaren xede diren pertsonen ongizate indibidual eta sozialerako. Gaur egun gozatzen dugun gizarte-kohesioaren eta bizitza-

mailaren parte handi batek garai historiko hartan izan zuen bere ernamuina.

4. Nafarroako Parlamentuak bere esker ona halaber adierazi nahi die erakunde honen berrogei urte hauetan parte hartu duten foru parlamentariari. Berrogei urte hauetan zehar, nafar Legebiltzarrek ekarpena egin du nafar herriaren borondatea ordezkatzeko, hauteskunde ezberdinetara aurkeztu eta haietan ordezkaritza lortu duten aukera politiko ezberdinen bitartez, foru komunitate gisa garapen-maila altua erdieste aldera. Esker on hori halaber helarazi nahi die 1979an hasitako langintzari jarraipena eman eta gure herri eta hirietako bizitza eraldatu duten milaka alkate eta zinegotziei.

5. Nafarroako Parlamentuak, nafar gizartearen subiranotasunaren ordezkaritza-organoa den aldetik, eta toki entitateek, beren zerbitzuaren jomuga diren pertsonetikiko hurbiltasunak daukan balioan oinarriturik, aldarrikatzen dute beren borondatea dela nafar herritarren eskaerei erantzuten segitzea, gure autogobernua defendatzea eta elkarrizketa-, tolerantzia- eta akordio-gune izaten segitzea, non tokia izanen baitute nafar herritarren eskaera zilegi guztiek”. (10-19/DEC-00075).

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortu egiten baitu genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituneko neurriak abiarazi zirenez geroztik Espainiako Gobernuak, Foru Gobernuak eta toki entitateek eginiko esfortzu eskergera.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, ondo adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aitortu egiten du genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituneko neurriak abiarazi zirenez geroztik Espainiako Gobernuak, Foru Gobernuak eta toki entitateek 2017ko ekainetik eginiko esfortzu eskergera.

2. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du talde politiko guztiek eta erakunde guztiek baturik lanean segitzea indarkeria matxistaren

aurkako borrokan, halatan beterik estatu-ituneko akordio eta neurriak bai eta konpromisoak ere, talde politiko guztiek eta administrazio publikoek norik bere eskumenen esparruan hartutakoak.

3. Nafarroako Parlamentua konprometitzen da emakumeenganako edonolako indarkeriaren aurkako borrokan gobernuaren zeregina sendotzen segitzera, harik eta indarkeria matxistarik gabeko gizarte bat erdietsi arte”. (10-19/DEC-00076).

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adierazten baitu emakumeek pairatzen dituzten hainbat diskriminazioren ondoriozko edonolako indarkeria sexistaren aurrean.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, ondo adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak berriro ere bere arbuioa adierazten du emakumeek pairatzen dituzten hainbat diskriminazioren ondoriozko edonolako indarkeria sexistaren aurrean, edozein alor eta testuinguruan.

2. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du, lanean aktiboki jarraitzeko emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeriak eta ahuldade egoerak sortzen dituzten desberdinkeria guztien aurka.

3.- Nafarroako Parlamentuak emakume eta neskato erasotu edo/eta erailenganako elkartasuna adierazten du, indarkeria sexista muturrekoenaren biktima diren aldetik, eta bere laguntza osoa eskaintzen die haiei eta haien familiei.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela adin guztietako gizonezko guztiek konpromisoak eta posizio aktiboak hartzea

emakumeenganako edonolako indarkeriaren aurka.

5. Nafarroako Parlamentuak herritar guztiak gonbidatzen ditu jarrai dezaten emakumeen aurkako indarkeria arbuizatzen, eta konpromisoa erakusten indarkeria horren deuseztatzearekin, kontrol patriarkalaren adierazpen oro eta emakumeen askatasunerako eta autonomiarako muga eta baldintzapen oro salatzen, eta parte har dezaten azaroaren 25aren inguruan antolatzen diren ekitaldi guztietan.

6. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Deuseztatzearen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin; horretarako, elkarretaratze bat eginen da Parlamentuko atalondoan, non adierazpen hau irakurriko baita. Halaber, begizta bioleta bat ipiniko da Parlamentuaren fatxadan”. (10-19/DEC-00077).

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu heldu den azaroaren 19an eginen den Haurren Sexu-abusuaren Prebentziorako Nazioarteko Egunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du heldu den azaroaren 19an eginen den Haurren Sexu-abusuaren Prebentziorako Nazioarteko Egunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak herritarrei dei egiten die Haurren Sexu-abusuaren Prebentziorako Nazioarteko Egunaren kariaz antolaturiko jardueretan parte hartzera.

3. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du haurren aurkako sexu-erasoak prebenitze aldera lan egiteko, bai eta beharrezkoak diren neurriak hartzeko eta eskueran dituen bitarteko guztiak jartzeko ere, xede duela haurren aurkako indarkeria-mota hori desagerraraztea”. (10-19/DEC-00078).

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen baitu Mikel Arregi zenaren oroitzapena eta memoria bizirik mantentzea, era errefusatu egiten baititu haren oroitzapenezko monolitoaren aurka behin eta berriro eginiko erasoak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du Mikel Arregi zenaren oroitzapena eta memoria bizirik mantentzea.

2. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu haren oroitzapenezko monolitoaren aurka behin eta berriro eginiko erasoak, haren memoriaren aurkakoak eta herritarrek bakezko elkarbizitza

normalizatu baterako duten eskubidearen aurkakoak izateagatik.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela aurrerapausoak ematea motibazio politikoko biktima guztiek egiarako, justiziarako, errekonozimendurako eta ordainerako duten eskubidean, ezein indarkeria-gertakari ez errepikatzearen berme gisa”. (10-19/DEC-00079).

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu ‘Biosciencie’ aldizkarian klima-aldaketa dela-eta argitaratu diren aldarrikapenekin, 153 herrialdetako 11.258 ikertzaile zientifiko baino gehiagok sinatutakoekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du joan den asteartean Bioscience aldizkarian argitaratutako artikuluko aldarrikapenekin. 153 herrialdetako 11.258 ikertzaile zientifiko baino gehiagok sinatu zuten artikulua, eta Genevako Klimari buruzko Lehen Mundu Konferentziaren (1979) berrogeigarren urteurrenaren harira argitaratu da.

Agerian jartzen ditu ordutik hona garai hartan jada “kezkgarri”tzat jotzen zen egoerari buelta ematen izandako arrakasta eskasa.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du bere eskumenen esparruko behar diren neurri guztiak hartzeko klima aldaketa gerarazteko”. (10-19/DEC-00081).

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak aurkeztu du Nafarroako Parlamentuaren plantilla organikoa aldatzeko proposamena, 2019ko azaroaren 11ko Mahaiko erabakiaren bidez ebatzia.

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 14.1 artikuluekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen honako plantilla organikoa onestea. Bertan

Prentsa, Argitalpenak eta Protokolo Zerbitzurako ikus-entzunezkoen komunikazioko teknikari lanpostu bat eta protokolo harremanetako idazkari lanpostu bat sortuko dira, ondoren zehazten den bezala.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuko web orrian argitara dadin.

Iruñean, 2019ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

	Kop.	Maila	Izendapen librea	Esklusibitate	Bateraezintasuna	Lanpostu osagarria	Mailako osagarria	Berariazko osagarria	Arrisku bereziko osagarria
PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA									
Prentsako burua	1	A		55		81,30			
Komunikazio teknikaria	1	A			35	51,30			
Ikus-entzunezkoen komunikazioko teknikari (4)	1	A			35	51,30			
Itzultzaileak (7)	5	A		55		35,30			
Protokoloko teknikaria (8)	1	B			35	49,40			
Administraria (4)	2	C				62.68	12		
Transkriptoreak (4)	6	C				62.68	12		
Protokoloko harremanetako idazkaria (9)	1	C	X			62.68	12		

(4) C1 mailako euskara-titulua duen lanpostua.

(7) Itzulpen eta interpretazio eginkizunak dituen lanpostua.

(8) B1 mailako ingeles-titulua duen lanpostua.

(9) Izendapen libreko lanpostua, Legebiltzarreko Mahaiak izendatua Nafarroako Parlamentuko eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko C edo D mailako funtzionarioen artean.

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordeak Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan dituen kideak izendatzea.

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordeak, 2019ko azaroaren 20an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen:

1. Honako pertsona hauek izendatzea Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordearen ordezkari Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan:

María Aranzazu Biurrun Urpegui andrea.

Pablo Azcona Molinet jauna.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

